

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak dira enpresa batek egin behar dituen ezinbesteko jarduerak, negozio-ereduak funtziona dezan. Beraz, hori kontutan izanik, hasiera batean, funtsezko jarduera nagusia **ekoizpena** izango da, hau da, aplikazioan zenbait esperientzia sortuko ditugu kontsumitzaileen eskura, nahiz eta bezeroak eskaerak eginda ere (filtraketak eginda) beraien esperientzia sortzeko aukera izango duten. Horregatik, enpresako partaideon irudimena eta sormena beharrezkoa izango dira, kontsumitzaileentzat ahaztezinak edo gustagarriak diren ekintzak (esperientziak) sortu ahal izateko.

Horrez gain, **plataforma edo sareko jarduera** desberdinak erabiliko ditugu; batez ere, guk eskaintzen dugun zerbitzua ahalik eta jende gehienak ezagutzea nahi dugunez, jarduera hauek erabiliko ditugu gure helburuak lortu ahal izateko. Beraz, azaldutako helburua eta teknologia berriaren garapena kontuan izanda, hainbat plataformen eta sare jarduera desberdinen bitartez zabalduko dugu gure ekintza, Euskal Herria mailan ezaguna izateko.

Bestalde, jarduera batzuk **kanpoko enpresen esku** utz daitezke eta beste batzuk ez. Adibidez, gure enpresan oinarrituz, negozioak arrakasta handia izatera heltzen bada, kanpoko enpresekin harremanetan ere jarri gaitzke eta horrela gure inguruan ezaguna izateaz gain kanpoan ere gure zerbitzua eskuratzeko aukera izango dute. Horrela, gure enpresa merkatu nazionalean sartzeak, guk eskaera gehiago izatera ekarriko du, eta bestalde, diru gehiago lortuz gure enpresa handitzeko ahalmena izango dugunez, eskaintza gehiago izango dituzte bazkideek.